



12 euskal enpresa Canneseko MIPTVra joango dira, Basque Audiovisual markaren stand propioarekin

Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrak finkatu egin du Basque Audiovisual marka, Sektorea kanpoan sustatzeko erreferentzia gisa

Ia 20 metro koadroko standa instalatuko da Palais des Festivals delakoaren pabiloi nagusian, eta, Basque Audiovisual markapean, bertan bilduko dira Ikus-entzunezko Edukien eta Eduki Digitalen Nazioarteko Azokan (MIPTV) egongo diren hamabi euskal enpresak. Azoka hau munduko garrantzitsuenetakoa da arlo honetan, eta martxoaren 30etik apirilaren 3ra bitartean egingo da Frantziako Cannes hirian.

Euskadiko ordezkariak honakoek osatuko dute: **3Koma, Audiovisual 21, Baleuko, EiTB, Expressive, Jarkatza Media, K2000, Mediabost, Pausoka, Retelsat, Somuga eta Western Films etxeek.**

Eiken - Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterraren eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren (azken horrek sustatzen du ekimen hau) apustua enpresen lan komertziala erraztea zen, egoera hobean egin zezaten lan. Aldi berean, Euskadiko Ikus-entzunezkoa eta bertatik sortutako produktuak hobeto erakutsi nahi ziren, Basque Audiovisual markaren espazio berezia erabiliz.

"Stand propioa izateak abantaila asko ditu enpresentzat; izan ere, beraiek izango dute protagonismo osoa. Aurreko edizioetan konturatu gara marka ona dugula, eta, horrekin batera, gure enpresen edukiak kalitatezkoak direla. Ondorioz, erakargarritasuna eta interesa pizten dugun gunea gara. Hauxe izan da eman beharreko urrats logikoa, duela urte bi Basque Audiovisual markarekin hasi genuen ibilbide arrakastatsuari jarraipena emateko", azaldu du Eikenen zuzendaria den Itziar Menak.

Gainera, oraingoan, Euskadi eta Galiziako ikus-entzunezkoen klusterren arteko akordioari esker, erkidego bi horietako enpresek elkartu egin dituzte euren espazioak, eta, ondorioz, sinergia komertzialak eta erakargarritasun-sinergiak sortu dira. *"Espazio osoa –azaldu du Itziar Menak- 40 metro koadro ingurukoa izango da, eta networking programa bat antolatuko dugu elkarlanean, beste herrialde batzuetako produktoreekin aritzeko".*



Eiken - Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterraren helburua da ikus-entzunezkoen sektorearekin erlazionatutako enpresa, erakunde eta organizazio ugariaren presentzia ahalbidetzea MIPCTV 2009 azokan. Horrela, euren produktuak erakutsi eta kontaktu interesgarriak egin ahal izango dituzte, eta, bide batez, Euskadiko Ikus-entzunezkoen Sektorearen irudia sendotuko da, Cannesen espazio propio eta berezia izanda.

Kanpo Sustapena

Eikenek 2007. urtearen hasieran zeukan helburu estrategikoetako bat Kanpo Sustapenerako Urte Askotarako Plana finkatzea zen, eta, horretarako, marka unitario baten pean aurkeztu behar zen Sektorea. **Basque Audiovisual finkatu egin da nazioartean, Euskadiko Ikus-entzunezkoen Sektoreko marka gisa.** Hori horrela, Eikenek enpresei egindako inkestek diote enpresak marka garbi batekin identifikatzen direla, edozein merkatutan ezagutu ahal izango den marka batekin. Marka hori Euskadin egindako ikus-entzunezko produkzioaren berezitasunaren eta kalitatearen ikurra izan behar da.

Oro har, enpresen ustez, Basque Audiovisual babeserako plataforma bat da, eta, horren bitartez, nazioarteko merkatuaren alde egin nahi dute. Izan ere, Basque Audiovisual ez da soilik marka bat. Aitzitik, proiektua osatzeko, on-line erako katalogo komertzial bat (www.basqueaudiovisual.com) eta enpresei babesa ematen dien aholkulari-talde bat daude.

MIPTV azokak nazioarteko izaera argia dauka. Iaz, 100 herrialde baino gehiago elkartu ziren bertan. Azokak irauten duen bost egunetan jarduera ugari egiten dira: hitzaldiak, mintegiak, *keynote*-ak, koktelak, proiektzioak, prentsaurrekoak eta sari-banaketak. Egun horietan zehar, Cannes Europako ikus-entzunezkoen hiriburu bihurtzen da.